



GOBERNU BATZARRA

2020.11.24

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Nerea Letamendia Beloso

Patxi Amantegi Zubiria

Xabier Balerdi Tolosa

Jose M^a Villanueva Telleria

Ez bertaratutako zinegotzia:

Begoña Tolosa Mendia

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko azaroaren hogeita lauan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2020ko azaroaren 17ko ohiko bilkurako akta onartzea.
2. Tolosako bide publiko jakin batzuetan (TAO) ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa arautzen duten pleguak baliogabetzea eta lizitazioa bertan behera uztea OARC/KEA Oren 155/2020 Ebazpenari jarraituz.
3. Onartzea Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren esleipena.
4. Etxe abereen Udal ordenantzaren urraketa (RA): ebazpen proposamena.
5. Etxe abereen Udal ordenantzaren urraketa (JARJ): ebazpen proposamena.
6. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2020/1879 Dekretua: 2020/51 faktura zerrenda.
7. Dekretu hauen berri ematea: 2020ko azaroaren 6tik 12ra (2020/1781-2020/1823).



1. 2020KO AZAROAREN 17KO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko azaroaren 17an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. TOLOSAKO BIDE PUBLIKO JAKIN BATZUETAN (TAO) IBILGAILUEN APARKAMENDUA KONTROLATZEKO, MUGATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN LIZITAZIOA ARAUTZEN DUTEN PLEGUAK BALIOGABETZEA ETA LIZITAZIOA BERTAN BEHERA UZTEA OARC/KEAOREN 155/2020 EBAZPENARI JARRAITUZ.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako bide publiko jakin batzuetan (TAO) ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzu-kontratu, bai eta aparkalekuaren zuzeneko kontrolari (arau-hausteen salaketa barne), bilketari eta instalazioen mantentze integralari buruzko eremuen geroko kudeaketa ere.
Unitate sustatzailea	Hiritarren Segurtasun eta Mugikortasun Saila
Espedientea	2020SABI0003

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

II.- AURREKARIAK

Lehen.- Tolosako Udaleko udaltzainburuak 2019ko abenduaren 4an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen, eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Bigarrena.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 23an, besteak beste, erreferentzian aipatutako kontratuaren espedientea onartu eta lizitazioari hasiera eman zion.

Hirugarrena.- 2020ko uztailaren 7an iragarkia argitaratu zen Euskadiko Kontratzailearen Profilean eta, uztailaren 10ean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratuaren balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen zuenez, kontratazioari buruzko errekurso bereziaren menpe egon zen lizitazioa.



Bosgarrena.- 2020ko uztailaren 28an EASYPARK ESPAÑA, S.L.U. enpresak kontratuei buruzko errekurtsio berezia aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoan (OARC/KEAO), erreferentzian aipatutako lizitazioa arautzen duten pleguen aurka.

Seigarrena.- Tolosako Udalak 2020ko abuztuaren 4an aurkeztu zuen errekurtsio horren aurkako alegazio txostena. OARCek, 2020ko irailaren 2an, B-BN 22/2020 Ebazpenaren bitartez, esleipen prozeduraren kautelazko etendura erabaki zuen.

Zazpigarrena.- 2020ko azaroaren 19ko 155/2020 Ebazpenaren bitartez, Tolosako bide publiko jakin batzuetan (TAO) ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzu-kontratuaren lizitazioa arautzen duten pleguak baliogabetzea eta lizitazioa bertan behera uztea erabaki du. Erabaki hori hartzeko arrazoia hau izan da: *“se concluye que el contrato recurrido restringe indebidamente la competencia por limitar a un único modelo de aplicación de pago móvil, gratuito y aportado por el adjudicatario que también debe prestar el SER, el acceso al pago de los servicios que son objeto del contrato. La satisfacción de la pretensión conlleva la anulación de los pliegos impugnados y la elaboración de otros que garanticen la igualdad y la libre competencia entre todos los operadores de aplicaciones de pago móvil, incluyendo la apertura a todos los operadores capaces de prestar el servicio en el caso de que el órgano de contratación decida permitir esta forma de pago. Una vez satisfecha esta condición, el poder adjudicador puede configurar el contrato discrecionalmente, incluso manteniendo las cláusulas impugnadas si lo estima oportuno pues la restricción a la libre competencia no procede de ellas, sino de la ausencia en la documentación contractual de estipulaciones que la faciliten. En todo caso, la anulación de los pliegos implica también la cancelación del procedimiento de adjudicación”.*

III.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak, hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eskumena alkate-lehendakariarena izango litzateke, baina Tolosako Udalaren kasuan, 2019/1228 Alkatezaren Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zizkion Tokiko Gobernu Batzarrari horien artean, 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen lizitazioak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.



Aurreko guztia aintzat harturik, 2020ko azaroaren 19ko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (OARC/KEAO) 155/2020 Ebazpenari jarraituz, haren ebazpenaren kalterik gabe, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako bide publiko jakin batzuetan (TAO) ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzu-kontratuaren lizitazioa arautzen duten pleguak baliogabetzea eta lizitazioa bertan behera uztea, OARC/KEAOren 155/2020 Ebazpenari jarraituz.

BIGARRENA.- Aurrekoaren ondorioz, dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatuzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean

HIRUGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea Hiritarren Segurtasun eta Mugikortasun Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisailari.

3. ONARTZEA TOLOSAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ESLEIPENA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratua.
Unitate sustatzailea:	Obra eta Zerbitzuetako Azpisaila
Espedientea:	2020SABI0007

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaileko teknikariak 2020ko uztailaren 16an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta hasiera eman zion kontratazio jardunbideari.



Bigarrena.- 2020ko uztailaren 30ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartu zen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari.

Hirugarrena.- Akordio berean, Udalbatzak erabaki zuen Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte.

Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, SERBITZU ELKARTEA, S.L. eta FCC MEDIOAMBIENTE, S.A. enpresek eratu beharreko ABEEak bakarrik aurkeztu zuen bere eskaintza.

Bigarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2020ko azaroaren 17an, kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: "Erreferentzian aipatutako kontratua SERBITZU ELKARTEA, S.L. eta FCC MEDIOAMBIENTE, S.A. enpresek eratu beharreko ABEEari esleitzea, honako prezio honetan: nagusia, 5.562.865,41 euro, eta BEZa, 556.286,54 euro; guztira, 6.119.151,95 euro".

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

BIGARRENA.- Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratua SERBITZU ELKARTEA, S.L. eta FCC MEDIOAMBIENTE, S.A. enpresek eratu beharreko ABEEari esleitzea, honako prezio honetan:

- nagusia: 5.562.865,41 euro
- BEZa: 556.286,54 euro
- guztira: 6.119.151,95 euro

HIRUGARRENA.- Ezartzea kontratuaren iraupena lau urtekoa izango dela, kontratua sinatzen den momentutik kontatzen hasita.

LAUGARRENA.- Enpresari eskatzea bete ditzala lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa eta hartutako konpromisoa, inolako erreserbarik gabe.

BOSGARRENA.- Ohartaraztea ezen, SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango denez, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen duelako, 153. artikuluan xedatutakoari jarraituz,



kontratua ezingo dela formalizatu, adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaleei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea Obrak eta Zerbitzuetako Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

4. ETXE ABEREEN UDAL ORDENANTZAREN URRAKETA (RA) : EBAZPEN PROPOSAMENA.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

2019ko uztailaren 7an, XXXX156J NIEa duen RAK ez zuen bete kalte egin dezakeen animalia zaindu eta gordetzeko behar hainbateko arreta izan beharreko betekizuna.

El día 07 de julio de 2019, RA, con NIE XXXX156J, incumplió con la obligación de mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daño.

Udaletxe honetan, 1534/2019 Alkatetza Dekretuaren bidez, zigor espedientea ireki zitzaion RAr etxe abereen ordenantzaren 9.2.g artikulua usteko arau-hausteagatik.

En fecha 26 de septiembre de 2020, mediante Decreto de Alcaldía 2019/1534, se incoó expediente sancionador a RA por presunta infracción del artículo 9.2.g de la Ordenanza Municipal sobre animales domésticos.

Instrukzio-egileak egindako proposamena jakinarazi zitzaion interesdunari 2019ko urriaren 10eko datarekin. Honelaxe zioen:

En fecha 10 de octubre de 2019 se comunicó al interesado la propuesta de resolución, cuyo contenido era el siguiente.

- RAK ondorengo arau-hauste larria egin duela deklaratzeko: etxe abereen Ordenantzaren 9.2.g artikulua ez betetzea.

-Declarar cometida por RA la infracción grave tipificada en el artículo 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

- 300,52 €-ko isuna jartzea.

-Imponerle la multa de 300,52 €.

Proposamen horretan, interesdunari hamar eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkeztu ahal izateko.

En dicha propuesta, se otorgó al interesado un plazo de diez días, a fin de que formulara las alegaciones que estimara convenientes.

RAK alegazioa aurkeztu zuen. Bertan egindako adierazpenek berretsi egiten zuten 9.2.g artikuluan azpimarratzen dena; beraz, ez zen onartu.

RA presentó alegaciones que fueron desestimadas puesto que las manifestaciones de dichas alegaciones no hacían más que confirmar los hechos



tipificados en el artículo 9.2.g.

Hori guztia kontuan izanik eta Tolosako Udaleko Antolakuntzako zinegotzi delegatuak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, esta Junta de Gobierno Local, a propuesta del concejal delegado de Organización, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la Alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.- Frogatuztat jotzea 2019ko irailaren 26ko 1534/2019 Dekretuan egotzitako ekintzak.

PRIMERO.- Dar por probados los hechos imputados en el Decreto nº 1534/2019, de fecha de 26 de septiembre de 2019.

BIGARRENA.- RAK ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzeko betetzea kalte egin dezakeen animalia zaindu eta gordetzeko behar hainbateko arreta izan beharreko betekizuna (Etxe abereen udal Ordenantzaren 9.2.g artikulua arabera). Aipatutako arau-haustea larria da.

SEGUNDO.- Declarar cometida por RA la infracción consistente en incumplir con la obligación de mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daño (en base al artículo 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándola infracción grave.

HIRUGARRENA.- 300,52 euroko isuna jartzea RAr.

TERCERO.- Imponer a RA una multa de 300,52 euros.

LAUGARRENA.- Isuna ordaintzeko epea hilabetean finkatzea. Epe hori ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa kontu honetan egingo da: 2095 5067 10 1060024816.

CUARTO.- Establecer el plazo de un mes para el pago de dicha multa, contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816.

BOSGARRENA.- Erabaki honen ematea Hiritarren Segurtasun Udaltzaingoko Sailari Kontuhartzaitzari.

QUINTO.- Dar cuenta del presente acuerdo al Área de Seguridad Ciudadana y Policía Municipal y a Intervención.



5. ETXE ABEREEN UDAL ORDENANTZAREN URRAKETA (JARJ) : EBAZPEN PROPOSAMENA.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

2020ko irailaren 30ean, Udaltzaingoa 071G042 zenbaki profesionala duen agenteak baieztatutakoaren arabera, JARJek, XXXX831D NANA duenak, kalte egin dezakeen animalia bat zaintzen eta gordetzen behar hainbateko arretarik ez zuen izan; horretaz gain, animalia toki ezegoki batean zegoen eta elikagai urriarekin.

El día 30 de septiembre de 2020, JARJ, con DNI XXXX831D, no mantuvo la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daños, ademas de mantener al animal sin la alimentación necesaria en instalaciones inadecuadas, según confirma el agente de la Udaltzaingoa con número profesional 071G042.

Udaletxe honetan, 1622/2020 Alkatetza Dekretuaren bidez, zigor espedientea ireki zitzaion JARJri etxe abereen ordenantzaren 9.2.a eta 9.2.g artikuluen ustezko arau-hausteagatik.

En fecha 9 de octubre de 2020, mediante Decreto de Alcaldía 2020/1622 se incoó expediente sancionador a D. JARJ por presuntas infracciones de los artículos 9.2.a y 9.2.g de la Ordenanza Municipal sobre animales domésticos.

Instrukzio-egileak egindako ebazpen proposamena jakinarazi zitzaion interesdunari 2020ko urriaren 26ko datarekin. Honelaxe zioen:

En fecha 26 de octubre de 2020 se comunicó al interesado la propuesta de resolución, cuyo contenido era el siguiente.

- JARJk ondorengo arau-hauste larria egin duela deklaratzeko: etxe abereen Ordenantzaren 9.2.a eta 9.2.g artikulua ez betetzea.

-Declarar cometida por D. JARJ la infracción grave tipificada en los artículos 9.2.a y 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

- 450,00 euroko isuna jartzea.

-Imponerle la multa de 450,00 euros.

Proposamen horretan, interesdunari hamar eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkeztu ahal izateko.

En dicha propuesta, se otorgó al interesado un plazo de diez días, a fin de que formulara las alegaciones que estimara convenientes.

JARJk ez zuen alegaziorik aurkeztu.

D. JARJ no presentó alegaciones.

Hori guztia kontuan izanik eta Tolosako Udaleko Antolakuntzako zinegotzi delegatuak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez

Por todo ello, esta Junta de Gobierno Local, a propuesta del concejal delegado de Organización, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la Alcaldía,



baliatuta,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.- Frogatutzat jotzea urriaren 9ko 1622/2020 Dekretuan egotzitako ekintzak.

PRIMERO.- Dar por probados los hechos imputados en el Decreto nº 1622/2020, de fecha de 09 de octubre.

BIGARRENA.- JARJk ondorengo arau-hausteak egin dituela deklaratzeko: kalte egin dezaketen animaliak zaintzen eta gordetzen behar hainbateko arretarik ez izatea, eta animalia toki ezegoki batean edukitzea, elikagai urriarekin (Etxe abereen udal Ordenantzaren 9.2.a. eta 9.2.g artikuluen arabera). Aipatutako arau-hausteak larria dira.

SEGUNDO.- Declarar cometida por D. JARJ las infracciones consistentes en no mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daños, además de mantener al animal sin la alimentación necesaria en instalaciones inadecuadas (en base a los artículos 9.2.a y 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándolas infracciones graves.

HIRUGARRENA.- 450,00 euroko isuna jartzea JARJri.

TERCERO.- Imponer a D. JARJ una multa de 450,00 euros.

LAUGARRENA.- Isuna ordaintzeko epea hilabetean finkatzea. Epe hau ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa kontu honetan egingo da: 2095 5067 10 1060024816.

CUARTO.- Establecer el plazo de un mes para el pago de dicha multa, contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816.

BOSGARRENA.- Erabaki honen ematea Hiritarren Segurtasun Udaltzaingoko Sailari Kontuhartzaitzari.

QUINTO.- Dar cuenta del presente acuerdo al Área de Seguridad Ciudadana y Policía Municipal y a Intervención.

6. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- **2020/1879 DEKRETUA: 2020/51 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2020/1879 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:



ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/1879

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hau:

51. zenbakia duena, 390.631,37 eurokoa

Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta faktura horiek ordaintzeko agintzea:

51. zenbakia duena, 390.631,37 eurokoa

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko azaroaren 20an

Zinegotzi delegatua

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

7. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO AZAROAREN 6TIK 12RA (2020/1781-2020/1823).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko azaroaren 6tik 12ra bitartean (2020/1781-2020/1823) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.



Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1781	2020	06/11/2020	DAZKARITZA	AMAROS 9KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
1782	2020	06/11/2020	DAZKARITZA	ARTXIPIAGA GARAJEETAKO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
1783	2020	06/11/2020	DAZKARITZA	RONDILLA 54KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
1784	2020	06/11/2020	DAZKARITZA	SAN FRANTZISKO 8KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
1785	2020	06/11/2020	DAZKARITZA	ETXEBIZITZA TASATUA ESKURATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DITUELA JAKINARAZTEA
1786	2020	06/11/2020	UDALTZAINGOA	SAMANIEGO ESKOLAKO GARRAIO ZERBITZUA EMATEKO BAIMENA
1787	2020	06/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ESKO0022 - KONPENTSAZIOA ONARTZEA
1788	2020	06/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ESKO0023 - ZABORRAK ERROLDA ZUZENDU
1789	2020	09/11/2020	AZOKAK	C. B.N I BAJA EMATEA BERDURA PLAZAN
1790	2020	09/11/2020	DAZKARITZA	CONTRATO DE OBRAS PARA LA ADECUACIÓN DEL MANTENIMIENTO DE LOS PARQUES INFANTILES DE TOLOSA, A ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO.
1791	2020	09/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	A. O. KUTXABANKEKO BAIMENDU ALDAKETA
1792	2020	09/11/2020	HIRIGINTZA	KORREO 52-5.SOLAIRUKO ETXEBIZITZA BITAN BANATZEKO BAIMENERAKO TITULARTASUN ALDAKETA EGITEKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
1793	2020	09/11/2020	DAZKARITZA	TRIANGULO PLAZAKO 98 (-2) APARKALEKUAREN ERABILERA ESKUBIDEAREN GEHIENEO PREZIOA JAKINARAZTEA
1794	2020	09/11/2020	DAZKARITZA	2020ERRE0024 KALTE ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA
1795	2020	09/11/2020	DAZKARITZA	2020ERRE0018 ESPEDIENTEAREN KALTEA EZ ONARTZEA
1796	2020	10/11/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA 16KO EUSKAL HERRIA PLAZARAKO BALKOJETAN EGINDAKO LANEI DAGOZKIEN OBRA AMAIERAKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
1797	2020	10/11/2020	HIRIGINTZA	DONOSTIA ETORBIDEA 6 PABILOIKO ESTALKIA ETA FATXADA ERABERRITXEKO
1798	2020	10/11/2020	ALKATETZA	TOLOSAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEAK KUDEATZEKO BEKAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO DEIALDIAREN ONARPENA

ESKUC3c9cd20-9e42-460a-9ceb-4fd903cd4363



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1799	2020	10/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	CASER RESIDENCIAL - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA: IRAILA
1800	2020	10/11/2020	EUSKERA	HIZKUNTZA IRIZPIDEAK GOGORARAZTEA
1801	2020	11/11/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0011 ESPEDIENTEAN EPEZ KANPO AURKEZTU DUELA ETA EZEZTEA.
1802	2020	11/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0002 ESPEDIENTEAREN ARABERA, OKERREKO SARRERAK ITZULTZEA.
1803	2020	11/11/2020	ENPLEGUA	MARKETIN AURRERATUARI BURUZKOIKASTAROA, MU
1804	2020	11/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	ALLIRI PASEALEKUA 13AN DAGOEN LOKALARI DAGOKION HONDAKINEN TASAREN AGIRIA DESEUSTATZEA. 2020TZKE0017 ESPEDIENTEA.
1805	2020	11/11/2020	AZOKAK	OSTALARITZAKO BONOAK: KONTSUMITZEKO EPEA LUZATZEA
1806	2020	11/11/2020	IDAZKARITZA	GIPUZKOA PLAZAKO 81 ZENBAKIA DUEN GARAJEAREN ESKUALDATZEA C.Z.Y-M.E.L.O.
1807	2020	11/11/2020	FESTAK	AMAROKO AUZO ELKARTEARI 2020KO AURREKONTUETAKO 0800.481.01.33800 PARTIDAREN KARGURA DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA.
1808	2020	11/11/2020	IDAZKARITZA	BIZIKLETAK APARKATZEKO ARAUA
1809	2020	11/11/2020	HIRIGINTZA	HIRIGINTZA SAILEKO AHOLKULKARITZA JURIDIKOAREN ZERBITZUA ALDI BATERAKO KONTRATATZEA.
1810	2020	11/11/2020	IDAZKARITZA	ETXEBIZITZA TASATUA EROSTEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ZIURTATZEA
1811	2020	11/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	50. FAKTUREN-ZERRENDA ONARTU ETA FAKTURA BAKOITZAREN ORDAINKETA AGINTZEA
1812	2020	11/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020KOES0017 - OHZ ERREKARGUA - AKATS ZUZENKETA
1813	2020	12/11/2020	IDAZKARITZA	KONDEKO ALDAPA 20KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
1814	2020	12/11/2020	IDAZKARITZA	IBAINDO 5EKO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
1815	2020	12/11/2020	AZOKAK	L.H.C.AK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOAREN ERANTZUNA
1816	2020	12/11/2020	HIRIGINTZA	KORREO 5 ERAIKINEKO EIT TXOTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1817	2020	12/11/2020	PERTSONALA	EUSKAERA ETA HEZKUNTZA BURU (Z.S.C.)

ESKUC3c9cd20-9e42-460a-9ceb-4fd903cd4363



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1818	2020	12/11/2020	HIRIGINTZA	"BIKUTZ TABERNA" ZEGOEN LOKALAREN DESJABETZEA (FELIPE GORRITI PLAZA 1). BETEARAZPEN SUBSIDIARIOARI EKITEA ERREGISTROKO KARGAK KENTZEKO IZAPIDEAK EGITEKO ETA ONDORIOZ BALIO JUSTUAREN ORDAINKETA EGITEKO.
1819	2020	12/11/2020	HIRIGINTZA	KORREO 62-3.EZKERRA ETXEBIZITZAN OBRA LIZENTZIARIK GABE EGINDAKO OBREN LEGEZTAPENERAKO ERREKERIMENDUA
1820	2020	12/11/2020	BERDINTASUNA	AZAROAREN 31EKO HITZALDIAREN BAIMENA
1821	2020	12/11/2020	BERDINTASUNA	AZAROAREN 25EAN HITZALDIAREN BAIMENA
1822	2020	12/11/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA 6-1.EZKERRA ETXEBIZITZA PARTZIALKI ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
1823	2020	12/11/2020	HIRIGINTZA	TOLOSAN GALTZADETAKO ZOLADURA BERRITZEKO LANAK.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2020IGBA0035-2020-11-24 akta/2020-11-24 akta